

**GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO  
XEDAPEN OROKORRAK**

1

**DISPOSICIONES GENERALES DEL  
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA****GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA****OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

*11/2021 Foru Dekretua, irailaren 29koa, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren, oinordetza eta dohaintzen gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren erregelamenduak aldatzen dituena.*

Foru dekretu honek hainbat aldaketa sartzen ditu erregelamendu hauetan: martxoaren 22ko 9/2011 Foru Dekretuaz onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua, urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretuaz onartutako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua eta ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaz onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua. Aldaketen helburua da foru arau jakin batzuen erregelamenduzko garapenaren edukia moldatzea, zehazki 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituen otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauak eta 2021. urterako zerga aldaketa jakin batzuk onesten dituen apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauak erregelamendu horien xedapenetan egindako aldaketetara.

Foru dekretuak hiru artikuluko eta azken xedapen bakarria ditu.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren esparruan, 1. eta 2. artikuluen bidez autoliquidazio epea aldatzen da, betiere oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren autoliquidazioa aurkezteko epeak izan duen aldaketarekin koherentzia mantentzeko, «mortis causa» eskurapenetan eta gozamenaren heriotzaren zain dauden gozamen eskurapenak direnean. Aldaketa hori 2019. urterako zerga neurri jakin batzuk onartzen dituen otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauaren 4. artikuluko hiru apartatuak sartu zuen urtarrilaren 11ko 3/1990 Foru Arauan, Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzkoan.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, 3. artikuluen bidez lehen aipatutako erregelamenduaren 32 bis.3 artikuluko b) letra-erren edukia egokitzen da entitate sortu berriztat azken zazpi urteetan eraturakoa hartu dadin, betiere 2021. urterako zerga aldaketa jakin batzuk onartzen dituen Foru Arauaren 1. artikuluko hirugarren ordinalaren hamaikagarren apartatuak egindako aldaketan aurreikusitakoaren haritik, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 89 ter.1 artikuluekin lotuta.

Azken xedapen bakarrean foru dekretua noiz jartzen den indarrean xedatzen da.

Horrenbestez, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposaturik, Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorritik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

**DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA****DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS**

*Decreto Foral 11/2021, de 29 de septiembre, por el que se modifican los reglamentos del impuesto sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados, del impuesto sobre sucesiones y donaciones, y del impuesto sobre sociedades.*

El presente decreto foral introduce diversas modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 9/2011, de 22 de marzo, el Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, aprobado por el Decreto Foral 42/2012, de 22 de octubre, y el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, con la finalidad de adecuar el contenido del desarrollo reglamentario de determinadas normas forales a las modificaciones realizadas en sus disposiciones, en particular, por la Norma Foral 3/2019, de 11 de febrero, de aprobación de determinadas medidas tributarias para el año 2019 y por la Norma Foral 3/2021, de 15 de abril, por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2021.

El decreto foral consta de tres artículos y una disposición final única.

En el ámbito de los impuestos sobre transmisiones patrimoniales y actos jurídicos documentados, y sobre sucesiones y donaciones, los artículos 1 y 2 modifican el plazo de autoliquidación, en coherencia con la modificación del plazo de presentación de la autoliquidación del impuesto sobre sucesiones y donaciones cuando se trata de adquisiciones «mortis causa» y de adquisiciones del usufructo pendientes del fallecimiento de la persona usufructuaria, introducida en la Norma Foral 3/1990, de 11 de enero, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, por el apartado tres del artículo 4 de la Norma Foral 3/2019, de 11 de febrero, de aprobación de determinadas medidas tributarias para el año 2019.

En cuanto al impuesto sobre sociedades, el artículo 3 adecua el contenido de la letra b) del artículo 32 bis.3 del reglamento antes citado para considerar entidad de nueva creación aquella que haya sido constituida dentro de los últimos siete años, en línea con lo previsto en la modificación efectuada por el apartado once del ordinal tercero del artículo 1 de la Norma Foral por la que se aprueban determinadas modificaciones tributarias para el año 2021, en relación con el artículo 89 ter.1 de la Norma Foral 3/2014, de 17 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

La disposición final única establece la entrada en vigor del decreto foral.

En su virtud, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno Foral en sesión del día de la fecha,

XEDATZEN DUT

**1. artikulua.** Aldatzea martxoaren 22ko 9/2011 Foru Dekretuaz onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamendua.

Aldatu egiten da martxoaren 22ko 9/2011 Foru Dekretuaz onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren Erregelamenduko 36. artikulua 2. apartatuko 1. arau berezia. Honela idatzita gelditzen da:

«1.a. Titularra hila delako sortzen diren gozamen azkentzeen buruzko autolikidazioak aurkezteko epea urtebetekoa izango da, gozamenduna hiltzen den egunaren biharamunetik aurrera. Berdin dio testamentu eragiketarik formalizatu diren edo ez, eta berdin dio noiz egin diren.»

**2. artikulua.** Aldatzea urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretuaz onartutako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamendua.

Aldatu egiten da urriaren 22ko 42/2012 Foru Dekretuaz onartutako Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren Erregelamenduko 40. artikulua a) letra. Honela idatzita gelditzen da:

«a) «Mortis causa» eskurapenetan, eta bizitza aseguruaren kontratuetan onuradun diren kasuan, epea urtebetekoa izango da, kausatzailearen heriotza egunetik aurrera edo heriotzaren deklarazioak irimotasuna hartzen duenetik aurrera.

Epe hori bera aplikatuko da gozamendunaren heriotzaren zain dauden gozamen eskurapenetan, jabaria «inter vivos» egin-tza bidez zatibanatua egon arren.»

**3. artikulua.** Aldatzea ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaz onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua.

Aldatu egiten da ekainaren 16ko 17/2015 Foru Dekretuaz onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 32 bis artikulua 3. apartatuko b) letra. Honela idatzita gelditzen da:

«b) Berrikuntzari dagokionez, entitate partaidetua berria edo sortu berria denean. Beharkizun hau betetzen dela ulertuko da entitatea eratu denetik zazpi urte baino gutxiago igaro direnean.»

*Azken xedapen bakarra. Indarrean jartzea.*

Foru dekretu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2021eko irailaren 29a.

DIPUTATU NAGUSIA,  
Markel Olano Arrese.

OGASUN ETA FINANTZA  
DEPARTAMENTUKO  
FORU DIPUTATUA,  
Jokin Perona Lerchundi.

(6363)

DISPONGO

**Artículo 1.** *Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 9/2011, de 22 de marzo.*

Se modifica la norma especial 1.ª del apartado 2 del artículo 36 del Reglamento del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por el Decreto Foral 9/2011, de 22 de marzo, quedando redactada en los siguientes términos:

«1.ª El plazo para la presentación de autoliquidaciones relativas a extinción de usufructos que se produzcan por el fallecimiento de su titular, será de un año a contar desde el día siguiente al del fallecimiento del usufructuario, se hayan formalizado o no las operaciones de testamentaría y cualquiera que sea la fecha de su otorgamiento.»

**Artículo 2.** *Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, aprobado por el Decreto Foral 42/2012, de 22 de octubre.*

Se modifica la letra a) del artículo 40 del Reglamento del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones, aprobado por el Decreto Foral 42/2012, de 22 de octubre, quedando redactada en los siguientes términos:

«a) Cuando se trate de adquisiciones «mortis causa» y de los beneficiarios de contratos de seguro de vida, en el plazo de un año a contar desde el día del fallecimiento del causante o desde aquél en que adquiera firmeza la declaración de fallecimiento.

El mismo plazo será aplicable a las adquisiciones del usufructo pendientes del fallecimiento del usufructuario, aunque la desmembración del dominio se hubiese efectuado por acto «inter vivos.»

**Artículo 3.** *Modificación del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio.*

Se modifica la letra b) del apartado 3 del artículo 32 bis del Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por el Decreto Foral 17/2015, de 16 de junio, quedando redactada en los siguientes términos:

«b) La novedad, cuando la entidad participada sea nueva o de reciente creación. Se entenderá cumplido este requisito cuando hubieran transcurrido menos de siete años desde la constitución de la entidad.»

*Disposición final única. Entrada en vigor.*

El presente decreto foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 29 de septiembre de 2021.

EL DIPUTADO GENERAL,  
Markel Olano Arrese.

EL DIPUTADO FORAL  
DEL DEPARTAMENTO DE  
HACIENDA Y FINANZAS,  
Jokin Perona Lerchundi.

(6363)